



Ariketa fisikoa
mailua da

Kolektibo askotan gertatzen da (ez bakarrik JFKZko profesionalen eta fisioterapeuten artean) jardun profesionala tresna bakarrera mugatzeko joera; nolabait, tresna hori profesio osoaren ikur bihurtzeraino. Lloretetik ariketa fisikoa mailu batekin parekatzen du. Batzuek mailuaren erabilpen eskusiboa aldarrikatzen dute, baina mailua jende askok erabiltzen du: arotzek, zirujauak, iturginek, igeltse-roek... Gauza bertsuetarako gainera; gauzak kolpatzeko, alegia. Helere, profesio bakoitzaren muina ezberdina denez, helburua ere ezberdina izaten da; eta igeltseroak, iturginak, zirujauak eta arotzak ez dira mailuaren erabilpenari buruzko eztabaidan ari. Zergatik gurean bai, ariketa fisikoari buruz?

Baina kontuan hartu behar da, era berean, eztabaida hau batez ere plano teorikoan, bulegoetan, politika mailan ematen ari dela. Kirol munduan lan egiten duen edozeinek daki, praktikan, zorionez, kolaborazioa dela nagusi JFKZko profesionalen eta fisioterapeuten artean. Bakoitzak bere arloan, elkarlanean,

mailua (barka, ariketa fisikoa) erabiltzen dugu guztiok, kirolariaren berrabiltze hobea lortzeko. Izan ere, ariketa fisikoa –izan terapeutikoa edo ez–, ez da ez fisioterapeutarena ez JFKZko profesionalarena: pazientearena, kirolariarena, bezeroarena da. Gu mailuaren erabilpenaren gidariak baino ez gara. Mailua nork erabili behar duen, edo nork erabiltzen duen ongien eztabaidatzeak helburu nagusi horretatik desbideratzen gaitu, osasunarekin zerikusirik ez duten arrazoiekin lotuta. Bakoitzak tresna hori dakien bezala erabili behar du, ez lehian baizik eta elkarlanean; horrela lortuko ditugu JFKZko profesionalek eta fisioterapeutok emaitzarik onenak. •

www.abante.eus



Ariketa fisikoa pazientearena, kirolariarena, bezeroarena da.

GAURE